MORGA

Bizimodua eta ohiturak

LABAYRU IKASTEGIA

MORGAKO UDALA

BILBAO
2011

Azaleko irudia: Ruiz de Azua
Egilea: LABAYRU IKASTEGIA
Herri Ondare Atala, lantaldea: Joseba Barrena, Ziortza Eguren, Eneko Zuloaga, Fredi Paia, Adolfo Arejita eta Akaitze Kamiruaga.

© Argitaraldi honena: Labayru Ikastegia – Morgako Udala

Labayru Ikastegia
Aretxabaleta, 1-1ngoa
48010 Bilbao
Tel.: 94 443 76 84 – Fax: 94 443 77 58
Posta elektronikoa: labayru@labayru.org

Fotokonposizioa: Ikur, S. A.
Silutegia: Baster, S.L.L.

Lege Gordailua: BI-1211-11
ISBN: 978-84-92599-20-2

Lan hau erreproduzitu, banatu, jendaurreratu edo eraldatzeko, titularren baimena behar da nahitaez, Legeak ezarritako salbuespen kasuetan izan ezik. Lan honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu behar baduzu, jarri harremanetan CEDROrekin (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.cedro.org).

AURKIBIDEA

Sarrera. Iñaki Uribe, alkatea 7
Berbaurrea. Labayru Ikastegia 9

Morga: bizimodua eta ohiturak

Herria 11
Auzunea 20
Abeltzaintza eta artzaintza 22
Nekazaritza (labrantzea) 29
Etxea 35
Elikadura (janariak) 38
Herri egutegia (jai eta ospakizun egunak) 42
Jaiotzatik heriotzara arteko bizitza-ohikuneak 50
Astialdia 57
Herri-medikuntza 61
Erropea (soinekoak) 63
Ogibideak 67
Herri-literatura eta mitologia 69
Informanteak 73
Argazkiak 74

SARRERA

Eskerrik asko. Berba eder bi horreekaz hasi gura neuke sarreratxu hau; eskerrak emonez zuoi, herritarroi, egin deuskuzuen harrera hain onagaitik, zeuon etxeko ateak zabalduaz eta zeuon asti baliotsua eskiniaz, orain dakargun altxor eder hau burutzeko.

Orain dala lau urte gu talde moduan Udal honetara sartu ginanean, lehenengo osoko batzarrean sortu eta onartu zan proiektuetariko bat dozue honako hau, amaituta eskuartean dozuena. Hasieratik argi geunkan, gure herri honek daukan ondasunik preziatuena eta gure arbasoakandik jaso dogun oinordekotzarik onena zala geure hizkuntza, Morgako euskerea.

Lau urte honeetan ahalegindu gara herria hobetzen, herri modernoago bat atontzen, herritarrei zerbitzu hobeak emongo deutsezana, eta uste dogu burutu ditugun lan guztiak horretara zuzenduta egon dirala. Baina lan horreek guztiak eta aurrerakuntza horreek guztiak ez dira betiko izango; batez be denporeak aurrera egin ahala, gauza guztiak zahartzen eta hondatzen joaten diralako.

Gure hizkuntzagaz, ostera, ez da bardin jazoten, eta konturatu ginan haren alde zeozer egin beharra egoala. Ezin genduan aukera hau igaroten edo galtzen itxi. Ikusten genduan gure nagusiak apurka-apurka gure ondotik bajoiazala –gure informanteetariko batzuk be joan egin jakuz bien bitartean–, eta eurekin batera gorderik eukien altxorrik handiena, herriko hizkuntzaren parte bat. Halan bada, Labayru Ikastegikoek euskera eta herri-jakintza gaietan esperientzia luzea eukiela kontuan hartuta, geure herri ondarea batu eta haren aztertze sistematiko bat egiteko asmoaz, eurakaz hartu-emonean jarri ginan.

Lau urte iraun dau lan honek eta horreetan urteotan hainbat pausu emon dira: barri-emoileakaz egon, grabazinoak egin, argazkiak atera eta beste hainbat behar; eta azkenean bildutako material osoa eratu, sailkatu eta aztertu.

Horrez ganera, igaroko lau urteotan geure euskerea berreskuratzen be ahalegindu gara. Helburu horregaz *Ipuin-barreka* liburua, geure herriko seme dan Felix Bilbaoren (Aita Felix guretzako) liburu ospetsua eta ederra barriro argitaratu dogu, Labayru Ikastegiagaz batera. Argitalpen barri hori bizkaiera gaurkotuaz egina da eta marrazki-irudi politez hornidua. Morgatarrok atzera geure esku daukagu irakurteko liburu erraz eta gozatsu bat, bertoko euskerearen eta umorearen espilu ederra dana.

Guretzat hau izan da burututako lan emonkorrenetariko bat; alde batetik, zuen laguntza eta partaidetza izan dogulako, eta zuok egin dozuelako, eta bestetik, betiko edo luzarorako iraungo dauen lana izango dalako.

Horregaitik ba, ez daukagu besterik, atzera be eskerrak emon guztioi, zuek egin dozuen lan honek etorkizunean jarraipena izango dauelakoan eta gure herriko berbakuneak bizirik iraungo dauelakoan.

Iñaki Uribe Madariaga
Alkatea

BERBAURREA

Morga: bizimodua eta ohiturak izeneko liburuxka eta DVDa, Morgako herrian egin dan ikerketa etnografikoaren lehenengo emaitza dozue. Ikerketa horren helburua ez da besterik, herriko ondare etnografikoa eta linguistikoa, azken baten bizimodu tradizionala eta herri-jakituria, bideo eta audio grabazinoen bidez batzea, eta era barritu eta egokian atzera herritarren artean ezagutarazotea eta gizarteratzea baino.

Morgako Udalagaz hartu-emonean egon eta alkarregaz ebatziak hartu ondoren, orain dala hiru urte hasierea emon geuntsan egitasmo honeri. Lehenengo eta behin lekuko edo barriemoile aproposak topau ziran, gero itaun-erantzunean grabazinoak egin genduzan, hurrengo batutako material osoa sailkatu genduan, eta aztertu eta landu ondoren etorri dira emaitzak; euskarri bi honeetan argitaratu doguzanak.

Material bikotx honetan, DVDa da lanaren ardatza, eta liburuskatxua, osagarria. DVDan ikusi eta entzun ahal izango dozuez batu doguzan pasarterik esanguratsuenetako batzuk: ordu bi guztira. Gai-arlo diferenteak jorratzen dira bertan: herria, auzuneak, abeltzaintza eta artzaintza, nekazaritza, etxea, elikadura, herri egutegia, jaiotzatik heriotzara arteko bizitza-ohikuneak, astialdiak, herri-medikuntza, jazkerak, eta herri-literatura eta mitologiako gaiak; honeetako gai guztiotako bideo-txatalak dozuez hor.

Geuk esatea ez dakigu ondo dagoan, baina sekulako garrantzia dauka gure eretxian honetariko egitasmoak aurrera eroateak. Zorionez esan lei kontuan jausi garala, bai gure herri administrazinoak, bai kultura erakunde batzuk, hondino bizi dan jentearen akorduan eta gomutan dagoan herri ondarea zehatz batu eta jagotea ezinbestekoa dogula. Labayru Ikastegiak ibilbide luzea dauka egina, arlo honetako gaiak batzen eta lantzen. Metodologia zehatz baten jaube gara, Euskal Herriko, eta batez be Bizkaiko, hainbat herritan ibiliak gara eremu honetako gaiak batzen eta aztertzen. Labayru Ikastegiak luzatu ezinekotzat daukaz Morgan egin diran lako beharrak. Gure gizarteak aldakuntza itzelak ezagutu eta bizi ditu azken aldi honetan, batez be lehengo mendeko hirurogetazak urteetatik honantz. Horrexegaitik da inozkorik beharrezkoen honetariko ikerketa zehatzak herri bakotxean egitea, informazinoa eta ondarea modu egoki eta sistematizatuan jasotzea, eta lan horren emaitzak teknika barriak erabilita zabaltzea; edade-tarte eta gizarte maila guztietara ailegatzea. Horixe izango da, egon seguru, lehena eta geroa buztartzeko bidea eta aurrerantzean be transmisinoaren kateari eten barik eusteko modua.

Horixe izan da, ba, lan honen helburua. Beharrau ahoz emondako informazinoan oinarrituta dago, eta horretarako behar-beharrezkoa izan da bertoko lekukoen laguntasuna eta testigantzea. Bioake barriemoile guztioi gure eskerrik zintzoena, erakutsi daben borondate handiagaitik. Eskerrak emon gura deutsaguz baita Morgako Udalari be, ikerketa hau egiteko gugana jo dauelako, eta etorkizunean, morgatarrentzat ezeze ganerako guztientzat be, probetxugarriak izango diran proiektuak bideratu eta bultzatzeko ardurea hartu dauelako.

Labayru Ikastegia
Herri Ondare Atala

HERRIA

Laurehun eta hogei bat bizilagun baino euki ez arren, lurralde zabalak hartzen ditu Morgak. Beronegaz muga egiten daben herriak dira Errigoiti, Arrieta, Larrabetzu, Zornotza, Muxika, Gamiz-Fika eta Fruiz. Inguruko mendirik altuenak dira, Bizkargi (*Bizkergi,* 562 metro), Mendigana (*Mendigane,* 272 metro) eta Urkulu (*Sanpedro mendidxe* izenaz ezagunagoa, 370 metro).

Lur eremu zabal horretan, Andramari eta Meakaur izan dira gune nagusiak, baina horreen ondoan badira hainbat auzo, auzotxu edo baserriune han-hor-hemen. Hara hemen gure barriemoileek aitatu deuskuezanak; berrogeitik gora toponimo dira, besteak beste. Ganetik, Goikoganetik gatozela Telleria (*Talleri*), Okoriko eskoarantz gelditzen dala; Oñarterako bidekurutzean, Plores (*Plose*), Landa, Lekerika (*Lekerike*), hau Andramari herrigune nagusiaren barruan; hemen dira gaur udaletxea eta herriko komertzio nagusiak, eta eleizea be bai. Honen ondoan, beheratxua-



Andramari auzoa.



Oñarte auzoa.



Menika auzoko Goikoetxe baserria.

go, Morgakoene (*Morrokone*); errepideari aurrera segiduta Ubilla (*Ubille*) eta Erroteta; aldatsa igonda, bidekurutzean, Gerekiz (*Gerekixe*) eta goranzko etxeguneak: Errigoiti partera Untxine eta Gardoa, eta Bizkargirantz, Landotz (*Landotze*), Eskerika (*Eskerike*), Azabala (*Azabale*) eta Patroiene (*Patroine*). Andramaritik Bizkargi alderantz dagoz Igartu (*Igertu*), Aratxillo (*Aatxillo*), Eskerika (*Eskerike*) eta Baba be; Gerekiztik Mungiarantz jo ezkero, ezker aldera Sagasti, Urikoetxe (*Urukutze*), Beiti eta Errotatxu; Meakaurrerako bidekurutzean Izabale; errepidean aurreratxuago Zubierrota (*Zubarta*), handik Olara ailegau arte.

Ploreseko bidekurutzean ezkerrerantz jota, Urkulu mendi barrenean, Oñarte auzo zabala; aurrera eginda Altamira (*Altamire*), San Migel ermitea ondoan dauela, eta aurreratxuago ezker aldera Gabatika (*Gabatike*) eta Goltzarri (*Boltzarri*). Han beheko aldean Ganbe ibarra eta bere auzotxuak: Menika (*Menike*) eta Zugatzaga (*Zuetza*) be-



Geixo(r)a baserri-etxea, Oñarte.

herantz goazela, ezkerrerantz Ibarra (*Iberre*) dagoala; Ganbe ibarrean dagoz, Sanpedro mendiaren barrenean, Orue eta Gordia (*Guardidxe*), eta beherago Abauntza (*Abuntze*), Bekoerrota (*Bekorta*) eta Zorrotzondo; eta Fika alderdira Zabala (*Zabale*) eta Janduniz, San Juan ermitea ondoan dauela. Oñartetik Meakaurrerako errepide ondoan dago Biorreta (*Bidxorta*) eta aurreratxuago Meaka (*Mieka*), auzounetik bazter eta goranztxuago dituala Arkotxa (*Arkotxe*), Arkotxabarri (*Arkotxebarri*) eta Kallene (*Kañele*) baserriak, eta eleiz alderako aurbeherearen goi partean Elesburu, eta beherago jatsita, Meakaur (*Miakorre*), herriaren lehenagoko gune administratiboa, eleizea, ortusantua eta eskola zaharrak barruan dituala. Handik Olara bidean Olalde (*Eskolape* be esan izan jako), eta ibar barrenean, ibaiak Errigoitiko lurretatik banatzen dauela, Ola. Meakaurreko errepideari segiduta, Izabaleko bidekurutzera urteten da, Gernikatik Mungiara doan errepide nagusiagaz bat egiten dauena.



Meakaur, 1950.

Herriko eraikuntzen artean azken hamarkadetan jazo diran aldaketa batzuk aitatzea komenidu da: udaletxea lehenago Meakaurren egoan eta azken 30 urte pasautxutik Andramarin dago. Meakaurren udaletxea egoan etxe horretan egon zan eskola zaharra be, harik eta Meakaurren bertan barria egin eben arte. Udaletxe eraikin horrek beheko partean bizimodu bat be baeukan familia batentzat. Oraindino bizi diran zaharrenak Meakaurreko eskola zaharrera joaten ziran. Baina gerra aurrean auzo-eskolak eregi ziran, bata Andramarin eta bestea Ganben; auzo-eskola horreetan bertako maisu-maistrak egozan, eta hareexetara batzen ziran gerraoste guztian be euren inguruetako eskola-umeak, harik eta zarratu ziran arte. Gaur ez dago Morgan eskolarik.

Eleizak dirala-ta, Meakaurrekora joateko joerea euki dau jenteak, Andramariko eleizea (lehenago ermitea izana) txikiegia zalako edo. Baina errazoi sakonak bestetarikoak ziran: hildakoen sepulturak be Meakaurreko eleizan egozan.



Tomas Deunaren ermitea eta Gordia Etxebarria baserri-etxea, Gordia, 1984.

Andramariko eleizea txikia izanagaitik, herriko lekuko gehienek daukiez gogoan eleiza horren hiru altara ederrak.

Ermitak, baselizak be ez dira gitxi Morgan: Meakaurren bertan Kristo Kurutzekoaren kapilea dago –*Kurtziperioa* edo *Kurtzipizidxoa* deritxona– eleizearen aurrez aurre, Gerekizen Esteban deunarena (*San Esteban*), Altamiran Mikel deunarena (*San Migel*), Gordian Tomas deunarena (*Santo Tomas*); eta Ganben, Jandunizen, Jan-



Kristo Kurutzekoaren kapilea Meakaurren.

done Joane edo Juan Bautista deunarena (*San Juan*). Azkenez, Bizkargin, Santa Kurtze, honetan Muxikak, Etxanok eta Larrabetzuk be parte dabela. Sanpedro atxa esaten deutsen horretan egoan San Pedroren ermitea, azkenengo gerratean birrindu ebena.

Barriemoile batek dino entzunda daukala antxina-antxina hildakoen gorpuai eleiza barruan lurra emoten jakela. Jente gehiago da, lehenago eleizeari eutsala atzeko alderdian egoan kanposantu zaharraren barri dakiana; haren sarrerako markak hondino be agiri dira eleizako horman. Ortusantu barria eleizatik atzerago egin eben, antxina Bizkaiko jaunaren torrea egoala esaten daben lekuan. Eleizatik ortusantura andabide zaharra harri-losaz egina zan. Gerorago bidea urratu eben alboragotik, auto eta guzti bertaraino ailegetako.

Bizilagun askotzarik ez daukan herria izanagaitik, lehenago hainbat taberna edo ardandegi zituan Morgak auzoetan sakabanaturik: bi Meakaurren, Sakristauena (*Sakristune*) eta Agustinena (*Agustiñe*); hiru Andramarin: Parkorena (gaur Poli dagoan lekuan), Kontxerena (gaurko Katxiren lekuan) eta Etxetxikikoa; beste bat Gerekizen. Lehenago Ploresen (*Plose*) tabernea egoana be akorduan dauka hondino jenteak. Oñarten, Ganben (Menikan) eta Meakan be (Antxelenen) izan ziran tabernak edo antzekoak. Orduko tabernak, izan be, ardandegi hutsak ziran gehienak. Baina batzuk, taberna eta denda izan dira aldi berean; Andramari



San Migel ermitea Altamiran.



Katxi tabernan, txikitoak hartzen, c. 1962.

eta Meakaurrekoak, edanleku izanaz ganera, etxean behar ziran hainbat jenero be saltzen eben: jan-edan gauzea (orioa, azukerea, atxikoria), tabakorria, oinetakoak (abarka-abarketak) eta holan.

Kamino eta bideak, urteak joan ahala, asko hobetu dira, eta horregaz batera garraioa eta komunikabideak. Urrun lotu dira harako sasoiak, auto frantses batek Mungiatik Gernikarako bidea egin behar ebala aurretixek jakin, batak besteari abisua emon eta Morgako jentea beheko kamino barrira bajatu izan zanekoak, automobila zer zan ikustearren. Gure barriemoileen gaztetan gitxi ziran autoan ibilteko erea izaten ebenak, herri osoan auto bat edo bi baino ez egozalako. Morgatik Mungiara, Muxikara, Gernikara eta Bilborainoko bidea be makina bat biderrez egin behar izaten zan oinez. Autobus bi ipini ebezan gero: bat, eguneroko, *diaridxoa*, Andramaritik urten, Izabale eta Olatik atxina, Mungiatik igaro eta Bilboraino ailegetan zana. Morgako jenteak hori hartzen eban, Basurtuko edo Mungiako feria eta plazetara joateko, han bendejea saldu edo etxerako jeneroa erosteko bide batez. Beste autobusa, astelehenetan Gernikara joaten zana zan.

Morga sekula ez da izan industria-herria; herrian bertan ez da lantegirik egon, Ganbe aldeko kantarea, Andramariko zerrea (oraintsuagokoa) eta Errotetako teileria txikia izan ezik. Jentea baserriko beharretik bizi izan da, eta gazte batzuk kriadu-kriada joanda (Bilbora batez be). Tradizino zaharreko industrien artean, errotak aitatu behar dira, herrian asko egozan eta: Erroteta, Sagasti, Errotatxu, Zuarta, Ola eta Olabarrin (Errigoitiko udal barrutia), gitxienez; eta lehenagoko denporan, Ganbe alderdian Bekortan be bai (Bekoerrota), izenak erakusten dauenez.



Erroteta auzoa.

AUZUNEA

Bizimodu gehiena alkarren ondoan egiteak, behar bardintsuetan ibilteak eta jaubetza komun batzuk eukiteak, orain erdi galduta dagoan auzokoen arteko hartu-emona oso estua izatea ekarri ohi eban.

Normalean etxetik kanporako beharrak egiteko batzen ziran auzokoak: azpigarria basoetan ebagi eta etxeetara eroan, karabietako beharrak, pinu-landarak basoetan sartu; garia ebagi, jo edo trilau; bideak zabaldu eta konpondu, ermitak garbitu edo barritu eta antzeko beste beharlekuak. Honeek auzolanok edo alkarreri laguntza emoteko beharrok trukean egiten ziran, eta parte hartzen ebenei emoten jaken saria, bazkari edo afariren bat izaten zan.



Garia triletako auzokoak batzen ziran. Patricio eta Jose Mª Uriarte, Marcelino Isasi eta Julian Gangoiti, 1960.

Etxe barri bat egin behar zanean, ostera, *totoa* egiten zan: bakotxak ahal eban materiala eroaten eban (harriak, harea, zurajeria eta abar) eta orduan be etxe barriaren jaubeek bazkaria edo afaria emotea izaten zan ohiturea. Etxeko materialetatik harago joian kontua zan, barriz: etxeren baten satsa falta zanean be auzokoak batu eta hari bakotxak ahal izaten eban satsa emoten eutsan, eta bardin azpigarriagaz be, kasurako.

Beste kontu batzuetarako be batzen ziran auzokoak, esaterako, ermandadeetan: oraingo lako segururik ez egoan legez, auzo bakotxean edo batzuetan ganadu-ermandadeak egoten ziran. Maiordomoa eta listerua ziran haren ardurea eukiten ebenak eta etxerik etxe ibilten ziran ganadua tasetan, ganadu horreen jaubeak zenbat pagau beharko eban erabagiteko. Maiordomoak urtean-urtean aldatzen ziran zotzetara eginez. Ganaduren bat galdu edo gaixoagaz hilten zanean, haren jaubeari dirua ordaintzen eutsan ermandadeak.

Etxe erreen ermandadeak ez ziran aurrekoak beste, baina baegozan hatarikoak be. Etxeren bat erre orduan, herriko nahi inguruko herrietako etxeetatik ibilten ziran ermandadekoak, etxe hori konpondu edo barria egiteko behar zan dirua eskatzen.

ABELTZAINTZA ETA ARTZAINTZA



Jose M.ª Erezuma.

Morgako bizilagun gehienak baserrian eta baserritik bizi izan diran ezkero, solo eta ortuko jeneroagaz batera, ganadua be etxe gehienetan eukiten izan dabe oraintsu arte, etxeko beharretan laguntzeko edota esnea eta okelea jateko eukiteko.

Beharrerako idiak, behiak eta astoa eukiten ziran normalean: idi edo behi buztarria, soloak erein aurretik prest ipinteko behar ziran lanabesak tiran eroateko: golde edo makinea, area, itailak, narra, arpelarria eta halakoak. Eta gurdia eroateko: satsa, bedarsikua, azpigarria, egurra edo halako zamak iragoteko. Astoa (eta inoiz mandoa edo zaldia), barriz, kargak leku batetik bestera eroateko, aparejuak ipinita: bedarra, bendejea, artoa edo uruna, gari edo osterantzeko garauak.

Kortako abererik esanguratsuenak, dana dala, behiak izaten izan dira. Etxean idirik ez egoanean, eurakaz egiten ziran soloatontze beharrak, eta horregaz batera, behiak izan dira etxerako behar zan eta geroago kanpora be saltzen hasi zan esnea emoten izan dabenak. Behi guztiak, dana dala, ez ziran bardinak: beharrerako onenak gorriak ziran, esne gitxi (7-8 litro) emon arren. Esnerik gehien eta okelarik gozoena, behi nabarrak emoten eben. Normalean egunean birritan erasten izan dira behiak, goizean eta ilundian; baina behia esnetsua bazan (egunean 20 azunbre inguru emoten ebana, kasurako), hirutan eratsi behar izaten zan.

Behien ernari aldia, personearen antzekoa da: bederatzi hilabetekoa. Ernari dagozala esnea gitxitzen joaten jake, harik eta bost edo seigarren hilebetean guztiz antzutu arte. Txahala egiteko orduan, etxekoek (eta batzuetan auzokoek) laguntzen eben txahala



Soloko beharretarako idi-buztarria erabilten zan.



Nila Elorriaga, 1976.

ateraten, agirian zituan hanketatik sokea lotu eta hari tiraka eginez, eta atzez etorrenean, ahal izaten zan moduan barruan bueltea emonda. Behin txahala egin ezkero, behiari balde bete ardao emoten jakon, bizitu eiten, eta lepoa be ardao eta zepilluagaz igurdi egiten jakon. Txahal jaiobarria zaku bategaz-edo apur bat sikatzen zan, eta gero behiak berak garbitzen eban mizka eginez.

Ganadu-buru bakotxak jaten behar dauenaren neurriko produkzinoa eukiten dau: jaten ez dabe bardin behar asto batek eta idi batek, edo beharrerako behi batek eta esnerako beste batek. Oraingo antzera, bi izaten izan dira *ganadu-jateko* nagusiak: bedarra eta pentsua. Pentsuetan famaduena sojeagaz eginikoa izaten zan, baina horregaz batera etxean konpuestoak be preparetan ziran: artouruna, zahia eta bestelakoak egosita. Idi edo behiei indarra emoteko, babea be sarri. Bedar berdea, batetik, lantzarretan edo barrutietan berez hazten zana zan, udabarritik aurrera; behiak kanpora aterata lantzarrean batzen ebena; baina bestetik, soloan ereiten izan dira beste mota batzuk: sekulabedarra, alfafea, frantsesa eta hirukotxa ziran ezagunenak, baina oloa, ailurbea eta beste batzuk be bai, behiei askara emoteko. Kalabazea be emoten jaken zatituta. Eta neguan naboa eta erremolatxea.

Etxean jateko hilten izan ziran animalien artean garrantzitsuena txarria izan da, ez da dudarik. Feriaren baten edo txarriak hazten zituan txarrizainen bati txarrikumea erosi eta etxean bertan hazten zan, ozalea edo hainbakoa jaten emonda. Ondo lodi eta mardo egoanean, hor Gabon inguruan hilten zan. Txarria hilten zan eguna egun handia izaten zan eta beharrean hasi aurretik,



Kalabazak ganaduari jaten emoteko ereiten dira. Antonene baserria, Meaka.



Txarriaren odola, buzkantzak eta odolosteak egiteko batzen da. Sakristune, 2008.

kopea eta galletak emoten jakezan *matarife* eta laguntzen etorritako familiarteko eta auzokoai. Txarribodea egiteko ohiturea egoan –eta hondino be badago etxe batzuetan–, eta umeak be eskolara barik egoten ziran egun horretan. Abadeari eta maisuari odolosteak eroan be bai hurrengo egunean.

Gaur egungo pistola, soplete eta zepilurik ez egoan lehenago, (hondino be etxe gitxi batzuetan baino ez dira erabilten), baina ostean txarria hilteko prozesua gaurko antz-antzekoa zan: txarrikortatik atera eta etartera edo sasteira urteten ebanean gantxoa samatik sartu, han egozan gizonen (eta andren) artean oinetatik sendo oratu eta zaran biren ganean egoan ohol baten ganean etxunda ipini –umeek buztanetik oratzen eutsien–. Etxunda egoala, samako zan nagusi ingurutik kutxiloa sartu eta segiduan azpian galdarea ipini, odola hara isuri daiten; aurretik etxera ekarrita egoten ziran ira edo otakaz txarria erre, gero teila edo lapiko tapakaz igurtzi eta igurtzi, azal guztia garbitu arte; sabeletik ebagi eta barrukiak atera, ea zenbat arroa egiten dituan jakiteko pisau, musturretik sartutako soka lodiagaz etarteko hage loditik eskegita ipini eta azkenean zatitu.

Txarria hilten parte hartzen ebenek armozutako gibel errea ardao zuriagaz eta ostean galleta batzuk hartzeko ohiturea egoan. Bitartean (eta ostean), andrazkoak txarrikiak egiten eta prestetan ekiten eutsen: odolosteak, txorizoak, eta abar.

Aitatu diran etxeko animalia horreekaz batera, oiloak eta konejuak be etxe guzti edo ia guztietan egoten ziran, arrautzetarako edo egun seinaladuetan jateko. Konejuak konejeretan sarturik eu-



Gaur egun be, txarria irakaz erreten da. Sakristune, 2008.



Konejuak egur eta alanbreagaz eginiko konejeretan eukiten dira.



Gaztaia egiteko, lehenengo mamina apurtu behar da.

kiten ziran eta urtean birritan edo hirutan egiten ebezan kumeak. Oiloak, edo korta barruko edo aparteko oilotokian eukiten ziran, eta bakarrik joaten ziran pertxetara lo egiten. Etxe inguruetan solte ibilten ziran lez, sarritan oilo batek habia kanpoan egiten eban eta desagertu eta handik egun batzuetara txitak atzean zituala bueltetan zan atzera etxera.

Morgan azken hamarkadetan izan diran pastore edo artzain gehienak kanpotarrak izan dira, Nafarroatik, Gipuzkoatik eta Bizkaiko Arratia aldetik etorriak batez be. Neguan agertzen ziran herrian eta uda partean joan. Herriko etxeetan egoten ziran apopilo eta, diru apur bat ateratearren, eurek eginiko gaztaiak saltzen ibilten ziran etxerik etxe. Lantzarrak ixten eutsiezanai trukean emon be bai.

Ardien esnea behiena baino lodiagoa da, baina gitxiago emoten dabe. Esne lodia dalako, litro bi ardi-esne nahikoa dira kiloko gaztaia egiteko. Behiaren esneagaz egin gura izan ezkero, sei litro behar izaten dira, ostera. Lehenagoko legarra eta oraingoa be ez dira bardinak: orain likidoak saltzen ditue, baina lehenago bildotsaren behaztuna erabilten zan.

NEKAZARITZA (labrantzea)

Soloa eta ortua ziran ezkero etxerako behar ziran edo plazan saltzeko ziran elikagaien iturri nagusia, horretan egiten eben baserritarrek lanik gehien.

Lantzar, baso, berezi nahiz aurreko urteko soloetan atzera be erein ahal izateko beharleku handiak hartu behar izaten ziran traktoreak agertu aurretik. Izan be, beharrik gehienak, idi edo behibuztarrien laguntzaz be bai baina, eskuz erabilten ziran tresna pisutsuakaz egin behar izaten ziran. Lur guztiak, ganera, ez dira bardinak: buztin-lurra edo lur gorria, kasurako, gogorra da, neketsuagoa da bertan egin beharreko lana, baina ur gitxiago behar izaten dau eta arto hobea emoten dau. Lur baltza, barriz, garanagoa da, lantzen errazagoa, baina ur gehiago eskatzen dau.



Idi-buztarriagaz lurra makinetan, 2008.

Lehenengo eta behin bedarra kentzen zan, kodainea nahi zerrea erabilita. Horren ostean lurra iruli behar izaten zan, lurrari bueltea emon, laiakaz (laiaketan jenterik zaharrenak baino ez dau ezagutu) edo makineagaz. Behin lurra makinatu ezkero, areagaz apurtu behar izaten zan, eta gero, mokilak apurtzeko, narra eta untzenarra pasetan ziran alderik alde, harik eta lurra garan-








Lehen soloko beharrak egiteko tresna ugari erabilten zan: makinea, markadora, exea, area, narra, alperrarria, gradea...



Gaur egun, soloko beharrak traktoreagaz egiten dira.

garan egin arte. Honeek beharrok, lurra ereiteko moduan itxi arte egin behar izaten ziran. Soloa prest egoanean, markadorea pasetan zan, eta haregaz eginiko ildoetan hazia ereiten zan.

Garia, artoa eta indabea ziran, gure barriemoileen sasoian, soloetan ereiten ziran jenero nagusiak. Garia ereitearri orain berrogeta hamarren bat urte itxi jakon, baina artoa eta indabea gaur be ereiten dira[1].

Gariaren beharrak luzeak eta gogorrak izaten ziran. Udagoienean erein eta udara arte egoten zan garia soloan. Orduan etozan behar gogorrenak, hatan be: garia eskuz ebagiten zan eta ebagi ahala txola txikiak egiten ziran. Honeek soloetatik etarteetara eroaten ziran eta han garipiloak egiten ziran txolakaz, harik eta bero handia egoan egunetan etarteko galauts artean harri-losen kontra joten hasten ziran arte. Barriagoak dira garia garbitzeko (galburuak eta galtzua banantzeko) geroago erabilten hasi ziran eskuzko nahiz motordun trilladorak.

Artoa, ostera, maiatzean erein, bagilean jorratu eta udagoien hasieran batzen zan. Artaburuak zerreaz ebagi eta zaranetan sartuta ekarten ziran soloetatik etxera. Ohikoa zan, horren ostean, etxekoak batu eta alkarregaz artaburuak zuritzea, kapaxak kenduta. Artaburuak, garandu barik, kamaran gordeten ziran, eta ganerakoak –lastoak eta



Artaburuak.

[1] Morgako indabea ezaguna egin da inguruko parajeetan be, bertako jatetxeei eskerrak.



Soloan eta ortuan batutako jeneroagaz bendejea saltzen joaten ziran plazara.

kapaxak– ganaduari emoten jakozan. Artoa, ganaduari jaten emoteko bazan, ez zan labatik pasetan, ez zan igartuten; arto horreri *axeartoa* esaten jakon. Artouruna egiteko zanean, errotara eroan aurretik, labasua egin behar izaten zan: etxeko edo auzoko labea otakaz ondo-ondo berotu, bero egoanean barruko hautsak atera eta artaburuak sartzen ziran, harik eta honeek guztiz igartu arte. Horren ostean eskuz eta artoaren beraren burutxakaz garandu eta zorroetan eroaten zan artagarauna errotara, bueltan uruna ekarteko.

Indabea, artoagaz batera ereiten zan soloan, markadoreagaz eginiko iladetan. Batera ereiten ziran, horretara arto landarearen inguruan batzen zalako indabea gora egiteko. Arto eta indaba landarak txikiak ziran artean, behin edo birritan soloa jorratu behar izaten zan, bedarra galtzeko. Baina osterantzean, soloan egoan artean indabeak ez eban behar apartekorik eskatzen; baina eskuz batzen zan eta ostean garandu, batzuetan eskuz, zerukak zabalduta, gehienetan txibiteagaz (*yibittiegaz*) jota. Txibitea palu luze bat zan, puntan beste palu bat ugalagaz lotuta eukana. Batari eskuakaz eraginda, besteagaz indabea joten zan harriaren kontra; ugalagaz jirau egiten ebelako paluok.

Aurretik esan dan lez, soloetan eta ortuan batzen zan guztia ez zan izaten etxerako: bendejea saltzeko, plaza garrantzitsu bi eukazan, eta daukaz, Morgak inguruan: Gernika eta Mungia. Bendejadunak zein auzunetakoak ziran, batera edo bestera joaten ziran baserriko andrak bendeja-saltzen: Gernika hurrago euken auzuneetakoak Gernikako plazara joaten ziran, eta Mungia hurrago ebenak (Ganbe edo Olakoak, esaterako) hango plazara. Bata as-

telehenetan eta bestea barikuetan izaten zan lez, batzuk bietara be bai.

Lehenengo autobusak agertu ziran arte, oinez egiten eben bidea bendejerak. Ez autobusetan bakarrik; bendejerak, Morgara esne-batzen etorten ziran esne-saltzaileren (*letxeruen*) kamionetatxuan be joaten ziran. Mungiako eta Gernikako plazetara bakarrik ez; Bilboraino be joaten ziran andra batzuk etxeko jeneroa saltzen: Galdakaoko Gallo auzuneraino oinez egiten eben bidea, eta han Arratiako tranbia hartzen eben lehenagoko sasoian.

Plazetan, baserrietatik joaniko saltzaileakaz (*bendejerakaz*) batera, erregaterak be baziran. Horreek erregaterok baserririk baserri ibilten ziran jeneroa erosten (arrautzak eta), etxekoandrakaz prezioa negoziauta, gero eurek beste leku baten saltzeko.

ETXEA



Geletan, medikua etorrenerako, eskuak garbitzeko palanganea eukiten zan.

Etxea lekurik esanguratsuena izan da gure artean. Etxea ez da bakarrik izan bertan biziteko; bizimodua be bertatik ateraten izan da, eta babesleku fisiko eta espirituala be izan da hemengoentzat.

Baserri-etxeak hiru atal nagusi eukiten izan ditu normalean: behean kortea, ezkaratza edo suetea (*ezkatza, sutie*), karrajua eta kuarturen bat (*beheko kuartue*). Horreen ganean egoten ziran beste kuartuak, salea eta eskusadua (*eskusue*) (etxe askotan ez egoan), eta azkenez, kamarea eta lastategia (*lastidxe*). Lehenago etxeetan behar ziran gauzak baino ez ziran eukiten, ez gaurko lez. Kuartuetan, esaterako, ohea, erropea gordeteko armairua, komoda bat (ez beti) eta medikua etorrenerako palanganea eukiten ziran. Karrajuan egoten ziran arka edo kaxak, lastategian bedarsikua, eta kamarea biltegi handi bat izaten zan: han gordeten ziran: indabea, artaburuak, patatea, frutak (intxaurrak, hurretxak, sagarrak), ortuari batzuk eta halakoak. Kortak be asko barriztau dira ordurik hona: behea lehen lurrezkoa izaten zan, eta garnuaren ganera azpigarria botaten zan. Pekorotza pilotuten zanean, behiei azpiak atera behar izaten jakezan eta satsak pilora irago. Sats-piloa korta barruan egoten zan leku batzuetan, baina kanpoan beste askotan.

Etxe barruan beheko sua (*bekosue*) printzipala izaten zan. Neguan sueteari (*sutieri*) beroa emoten eutsan eta jatekoa be han prestetan zan leku askotan; baina beheko suaren inguruan batzen ziran etxeko guztiak be. Etxe batzuetan, ez amatetearren, *abadeegurra* deritxon mukur lodi eta sendoa preparetan eben azkoreagaz eta trontzeagaz: lotara joan aurretik ha beheko suan ipini eta

hurrengo goizean hauspoagaz putz egitea nahikoa izaten zan haren txingarretatik gaueko sua bizituteko. Hauspoagaz batera, tenazak (egurra, txingarrak nahi hautsa mobiduteko), parrillea (jatekoa erreteko), treberea (berotu behar ziran jatekoen ontziak ganean ipinteko), talo-burdina edo palea (taloa egiteko) eta laratzua (galdarak edo lapikoak eskegiteko) be eukiten ebezan.



Etxekoak beheko suaren inguruan batzen ziran.

Lehenagoko zaharrenek ez ebezan ezagutu geroagoko barrikuntza batzuk etxean: argi-indarra, ura, irratia (*radidxoa*) edo telefonoa. Argi-indarra, auzo batzuetara errotatik heltzen zan, baina indar gitxikoa zan eta bonbilla bakarra eukiteko baino ez eban balio: beste bat biztuteko aurrekoa amatau behar izaten zan, kasurako. Osterantzean, petroleo- eta karburo-argiak erabilten ziran, baita kandeladun farolak be. Uretan iturrietara joan behar izaten zan eta erropea garbitzen erreketara. Lehenengo irratiak agertu ziranean, jentea halako aparatoen inguruan batzen hasi zan, partiduak entzuteko eta. Telefonoa oraintsuagoko barrikuntza da: lehenago Meakaurreko Sakristauenen (sakristaua bizi zan etxean) baino ez egoan, eta hara joan behar izaten eban telefonoz deitu edo deia hartu gura ebanak. Normalean, dana dala, gitxi erabilten zan eta, erabilten zanean, telegrametarako izaten zan. Meakaurrekoaren ostean, Andramarin, Sagastin eta Errotetan be ipini ebezan; gero altsika-altsika etxe guztietan sartzen joan zan.

Etxe barria egiten zanean orduan, ohiturea zan, egin barri egoala teilatuan ereinotz-adarra ipintea, obrea amaitua zala adierazoteko. Horrez ganera, etxea amaitu ostean monjorra (*mondxorra*) egiten zan, hau da, bertan ibili ziran behargin guztiai bazkari edo afari ona emoten jaken. Kasu batzuetan hondino be egiten da.

Amaitzeko, esan daigun etxea babesleku izateaz batera, babestu beharreko lekua be bazala. Hori dala-ta, ekatxak joten ebanean ekandua zan kandela bedeinkatua izetu eta ur bedeinkatuagaz etxeko gelak igurztea. Oinaztua egoanean (eta sarritan etxe barruan argi barik) honako errezua edo errezitadua esaten zan: *Santa Barbara*, *Santa Kurtz*, *Jauna balidxa zakiguz, iñuzentien ogidxe, Jaunan miserikordidxe*.

ELIKADURA JANARIAK

Azken hiru-lau hamarkadetara arte, baserri-etxean bertan eukiten izan dabe baserritarrek eguneroko jateko gehiena. Dendan jateko bereziak baino ez ziran erosten: azukerea, kafea, orioa, garbantzuak, arroza, makailoa eta halakoak. Ortu eta soloetan batzen zanagaz eta hildako animalietarik ateratako jeneroagaz bizi izaten zan batez be. Eta hori holan izanda, orduko sasoian ez zan egoten oraingo beste jateko, ez kantidadean, ez bariedadean: indabea, taloa, esnea, patatak, ortuari batzuk eta txarrikia izaten ziran janari nagusiak.

Goizean goizetik egun guztietan barausia egiten eben nagusiek etxe batzuetan: kopatxu bat likore beste ezer hartu aurretik



Taloak txapa ganean erreten.



Hamaiketakoa egiteko, sarri sardina zaharrak jaten ebezan.



Txarrikiak gatzun-askan kontserbetan dira, 2009.



Bijilia denporan makailaoa jateko ohiturea egoan.

solora beharrean joateko. Ohitura berbera egoten zan domeketan eleizatik urtenda ostean: batzuek tabernan eta beste batzuek etxera bueltauta, kopatxua hartzen eben. Armozutako jateko garrantzitsuenak, barriz, esnea eta artourunagaz eginiko taloa izaten ziran: *taloa ta esnie*. Esnea ondo egosita, *talo-zopak* hartzen ziran eta, behar dan beste jenero egoten zanean, sartenekoa be jaten zan.

Hamarretakoa edo hamaiketakoa soloan beharrean ebilzanak hartzen eben, baina ez zan gauza handia izaten ha be: sardina zaharren bat, txorizo-musturren bat edo antzekoak. Aste barruan indabea jaten zan, normalean, bazkaritako, eta ogia txokolate ontzaren bategaz askari edo meriendatako. Afaritako, aldiz, porrusaldea edo patatak saltsa berdetan (*saltsaberdie*) prestetan ziran, eta ganetik esnea hartu.

Jaten hasi aurretik legea zan mahaia bedeinkatzea –gauean, kasurako, errosarioa errezetan zan–. Jateko moduak be aldatu egin dira: herriko zaharrenek hondino akorduan dabe zelan lehenago-lehenago, bakotxak bere plateretik barik, guztiek kazuela edo fuente beretik jaten ebezan indabak nahi talo-zopak.



Mahats-mordak.



Klase askotako sagarrak egoten ziran.

Esan dan lez, txarrikia be ez zan falta izaten etxeetan. Txarria hilten zanean, odolosteak eta txorizoak egin eta saiheskiak zatitzen ziran, eta pernilak, txorizoak egiteko erabilten ez baziran, gatzetan sartzen ziran. Lehenengo amaitzen ziranak odolosteak izaten ziran; egin eta segiduan bestaldeko eta auzokoai eroaten jakezan. Txorizoak, ondo sikatzeko, iladetan eskegiten ziran (gehienetan suetean bertan), eta ondo sikatu eta ostean, koipetan sartzen ziran, edo arto artean kontserbetan ipini. Pernila gatzetan sartu behar izaten zan, ondo ontzea gura izan ezkero: kilo bakotxeko, egun eta erdi euki behar da gatzun-askan (*gazunaskan*), harri pisutsua gainean dala, barreneko ur guztia bota daian. Haren ostean, gatza ondo garbitu eta gero, piper gorria emoten jakon. Kamaran eskegiten ziran gero burdinazko gantxoagaz, arratoiek jan ez egiteko moduan.

Garizuma denporako barikuetan, ezin izaten zan txarrikirik jan, bijilia egoalako, eta osterantzekoak hartzen ziran: makailaoa, arrautzak, txarriki bako indabak eta ha-

lakoak. Okelea jan gura izan ezkero, buldea erosi behar izaten jakon abadeari.

Soloko lekari, ortuari eta txarrikiakaz batera, fruteagaz be afizinoa egoten zan etxe batzuetan, eta ondo jagoten ebezan fruta-arbolak: okaranak, ikoak, sagarrak, madariak, makatzak, mahatsak, melokotoiak, intxaurrak, hurretxak, kereizak, mailukiak, gaztainak… eukiten ziran. Eta etxe batzuetan, bakotxetik mueta ezbardinak. Sagarretan, kasurako, mustur-luzea, urdin-sagarra, urtebeteak, txarbea, gorria eta erreinetea egozan, besteak beste.

Ogiak aparte aitatzea merezidu dau. Gaur egun taloa da kapritxoa eta ogia jateko normala, baina lehenago bestetara izaten zan: taloa nahi beste egoan, baina ogi gitxi. Lehenengo, ogi-dendak zabaltzen hasi aurretik, eta geroago be okindegiok urrun egozan kasuetan, etxean bertan egiten zan ogia: azpiran amasau edo orea egin, aurreko asteko ogi-masatik gordetako zatia legar edo lebadura lez erabili, eta ezkaratzeko txapan (gitxi edo tamaina txikikoak baziran) edo laban (gehiago edo handiagoak ziranean) erreten ziran.

HERRI EGUTEGIA (jai eta ospakizun egunak)



Mariaren Alabak, Santa Ageda bezperan, etxerik etxe abesten ibilten ziran, 1920.

Urtean zehar badira herri egutegia osotzen daben hainbat egun eta sasoi. Egutegi horren atzean urteko solstizio biak dagoz, udakoa eta negukoa, eta horregaitik ugaritzen dira ospakizunak eta ekintza sinbolikoak, batera edo bestera hurreratu ahala.

Etxerik etxe kantu-eskean ibilteko urteko egun handiena Santa Ageda bezperea izaten zan. Egun horretan, edade eta leku diferenteetako jenteak urteten eban, txilindun makilak eskuan hartuta, koplak kantetan. Herritik kantetan ibilteko alkateari baimena eskatu behar izaten jakon, eta bardin egiten zan etxe baten aurrera heldukeran: etxekoai itauntzen jaken: *kantau ala errezau*. Etxean hilbarriren bat baegoan edo ezbeharren bat gertatu bazan, orduan errezau egiten zan, normalean.

Esan dan moduan, danetariko jenteak urteten eban Santa Ageda bezperako errondan. Eskola-umeek eta andrazkoek egunez urteten eben. Andrazkoen artean, baina, talde diferenteak egozan: alde batetik, sakristauaren taldeek urteten eben eta hareei arrautzak emoten jakezan, gero eurek saldu eta diru apur bat aterateko. Bestetik, Mariaren Alabak alkartekoek be urteten eben eta, azkenik, beste herri batzuetatik be etorten ziran Morgara kantetan, Bermeoko andrak, kasurako.

Gizonezkoak, ostera, ilundian urten eta gauera arte ibilten ziran farolakaz kantetan. Kintoak, ganera, brusak jantzita eta soinulariakaz ibilten ziran eskean.

Kantetan ziran koplak guztientzakoak izan arren, talde bakotxak euren kopla bereziak be kantetan ebazan. Ondoko honeek, kasurako, Mariaren Alabak alkartekoek kantetan ebezan:

Santa Ageda, Ageda,
gaur dala Santa Ageda,
gaur dala Santa Ageda eta
bihar da bezpera gaua.

Hementxe gatoz, hementxe gatoz
Morgako neska gazteak,
bandera erosten alkartu gara
zeuen laguntza guztiaz.

Gu gara morgatarren alabak
Morga da ba gure ama,
semeak ama maite daben lez
maite dogu gure herria.

Bestelako koplak be asko ziran; ondokoak, kasurako:

Aintzaldu daigun Agate Deuna
bihar da ba Deun Agate,
etxe honetan zorion hutsa
betiko eu(ki)ko al dabe.

Hementxe gatoz, hementxe gatoz
Jaungoikoaren legean,
kintoarentzako laguntasuna
zeuen artera batzean[2].

[2] Larrabetzun amaitzen zan horretara.

Hortxe goian lau ardi,
lutxuek zortzi belarri,
lukainkatxua gurago geunke
hil bazenduan txarririk.

Orain bagoaz alde egitera,
agur deuts(u)egu poz-pozik,
Agate Deuna bitartez dala
ez e(g)izue izan ez kalterik.

Kantetako alkateak emoniko baimena iragarten eban koplea, bestetik:

Bart arratsean egon gintzezan
herriko alkate deunagaz / jaunagaz,
berak emon dau libertadea
ta ibiliteko patxadaz.

Karnabal aurreko bigarren domekan Basaratostea (*Basatoste*) egiten zan: herriko ume eta gazteak batu, etxean jateko batzuk hartu eta inguruko basoetara joaten ziran, hareek surtan erre eta jaten. Haren ostean etozan Aratoste edo Karnabalak, nahi eta frankismo denporan galarazota egon ziran. Tostadak egiten ebezan orduan eta, urteren baten, etxekoen erropa zaharrak jantzi be bai: mutikoek ama edo amamarenak eta neskatoek aita edo aititarenak.

Garizuman eta Aste Santuan erlijinoa eta erlijinoospakizunak ziran bizimoduaren ardatza. Meza nagusiak luzeagoak eta horniduagoak izaten ziran, organistea be berenberegi etorten zan, eta prozesinoa egiten zan eleiza inguruetan barrura sartu aurretik. Abade eta monagiloak aurretik eta ganerako herritarrak atzetik Garizumako eleiz kantuak kantetan joaten ziran; gizonezkoek San Juan, Ama Birjina eta Kristo Andakoaren irudiak eroaten ebezan sorbaldan. Halantxe, harik eta eleizara sartu artean. Andrazkoak eta gizonezkoak banandu egiten ziran eleizara sartukeran, eta talde bakotxa bere lekura joaten zan. Etxean egozan erroparik onenak ipinten ziran Aste Santuko meza eta prozesinoetarako. Umeak, bestetik, prest egoten ziran meza ostean, Judas bildurtu eta



Basaratoste egunez, txitxiburruntzi egiten zan basoan.

igesean ipinteko, eleizea zarata-hotsean ixteko. Aste Santuan egiten ziran urteko konfesinorik gehienak be.

Garizuma aldian, misinoak be egiten ziran. Kanpotiko fraileak etorten ziran herrira misinoak emoten, –sarri pasiotarrak (Aita Eleuterio eta Aita Martzel), frantziskotarrak be bai (Zubieta anaiak, Sabino eta Jon); baina abadeak be etorri izan dira (Don Klaudio eta Martin Sagasti)–. Goizetan autortzak egiten ziran, arratsaldean ume eta gazteentzako sermoiak, eta arratsalde beluan helduentzat. Zortzi egunetan zehar izaten ziran. Sermoiak batzuetan gogor eta bildurgarriak izaten ei ziran. Jenteak akorduan ditu batez be seigarren mandamentuaren ganekoak eta andrazkoai begira egiten ziranak. Hain gogorrak izaten ziran hareek sermoiak ze, andra batzuek hareen ostean semealaba gehiago eukiten ei ebezan. *Misiñoietakoak* esaten jaken hareei umeai.



Misinoak, 1950.

Garizumako bariku guztietan bijilia egin behar izaten zan (bijilia eta baraua Bariku Santu egunean): abadeari buldea erosi ezean, ezin zan okelarik jan eta, normalean, makailaoa edo txarriki bako indabak jaten ziran. Pazko Domekearen aurreko domekeari Erramu eguna esaten jako. Egun horretan etxerik gehienetan erramu adarrakaz, *trunguari* zulotxua egin eta ziri bat sartuta, kurutzeak egiten ziran, eta erramu kurutzedunok txortan batuta, eleizara eroaten ziran bedeinkatzen; eta etxera bueltan soloetan sartzen ziran kurutzeak eta etxean gordeten zan erramua. Pazko egunean, ostera, ura eroaten zan eleizara, abadeak bedeinkatu egian; ur bedeinkatu hori etxera ekarten zan eta, trumoia jo edo ekatxa egoanean, etxeko gela guztiak igurzten ziran beragaz.

San Juan ermitan (Ganbeko Jandunizen) egiten ziran jai-ospakizunakaz batera, baziran beste erritu eta ohitura



San Juan bezperan, gaur egun be, sanjuanadea egiten da.

batzuk San Juan bezpereari (bagilaren hogeita hirua) eta San Juan egunari loturik. Bezperan sanjuanadea egiten zan; erregarritzat sasi, ira, adar, egur zati edo etxeko traste eta erropa zaharrak erabilten ziran. Sugarrak, lehenengotan handiak, apur bat moteltzen hasten ziranean, ohiturea zan ganetik salto egitea, batez be ume eta gazteak. San Juan suagaz batera, ohiturea zan baita, etxekoak, gari-txolai edo alanbre bati loturiko abarka zaharren bati sua emon eta ha eskuan hartuta etxeko soloen ingurutik ibiltea, horretara pizti eta animalia kaltegarriak uxatu eitezan. Denpora berean honetara kantetan zan:

San Juan, San Juan bagille,
zapoak eta sugeak erre,
artoak eta gariak gorde.
Doniene, Doniene,
gaur dala, bihar dala Doniene,
etzi San Juan biharamone,
gure soloan zaporik ez,
sugoirik bez, danak erre.

San Juan egunean, goizean goizetik, leizarra ipinten zan etxeko atean (batzuetan etarteko edo balkoiko zutabean be bai), baserriko jeneroagaz (ortuariak, artaburuak...) eta bedeinkatutako San Juan lorakaz batera. Erramu egunean legetxe, soloetan be etxean eginiko kurutzeak sartzen ziran. Umeek eroaten ebezan kurutzeok



San Juan leizarra.

eleizara bedeinkatzen. Baserri batzuetakoek, barriz, etxe eta soloetako erramuakaz batera, inguruko iturrira joan, han be erramua itxi eta bertako ura batu eta etxera eroaten eben, bedeinkatua zalakoan: urtebetean etxean eukita be ez ei zan usteltzen. San Juan goizeko garoa edo *iñuntze* dagoan lekuetatik, baraurik, ortozik ibilteko ohiturea be ezagutu dabe batzuek.

Domu Santu eguna ez zan bardin ospatzen etxe guztietan; danak ez ziran joaten ortusantura, kasurako. Baina prozesinoa egiten zan orduan be, bidean honetariko errezuak egiten ziran bitartean:

Amarik samurrena Karmengo Ama da,
arima tristeentzat atsegin bakarra,
errukitu zaitez, Jauna,
errukitu zaitez arimakaz, Ama.
Negarrez daukazuz bai zeuri deiez,
negarrez daukazuz bai zeuri deiez,
errukitu, Jauna.
Amarik samurrena Karmengo Ama da,
arima tristeentzat atsegin bakarra.

Gaurko antzera, lorak edo etxean eginiko leizar erramuren bat eroaten ziran ortusantura, eta prozesinoan joandako abadeak sermoia esaten eban. Ortusantua eta eleizako sepulturak garbitzeko eguna izaten zan Domu Santu. Eleizako sepulturetan, gainera, otzaratxua ipinten zan eta ogiak eroateko ohiturea egoan.

Urte amaiera eta hasikereagaz batera, azkenez, Gabonak ditugu. Handik hurreko Muxikan eta Gernikan lez, Marijesiak kantetan ziran Morgan be, baina, etxerik etxe barik, eleizan, goizeko mezan. Orduak egiten ebezan eleiza barruan era honetako koplak kantetan:

Belenengo urian
Gabon-gauaren erdian,
Aita San Jose topatu neban
asto txiki bat txalmatzen.

Bart Belenen, ta bart Belenen
jaio da Jesus Nazaret.

Nazareteko tenpluan dago
dama eder bat jarririk,
izena bere Maria dauko
ondo graziaz beterik.

Bart Belenen, ta bart Belenen
jaio da Jesus Nazaret.

San Josek esan deutso
Maria Birjiñeari:
Norentzako dozu dontzella
zeure prenda txikiori.

Jesukristo!
¡Ay qué bonito, buen niño!
Jesukristo!

Gabon-gaua izaten zan Gabonetako gaurik handiena: orduan batzen ziran senideak etxean afari eder baten inguruan. Aza-orioa, besigua, makailaoa, kalloak, karakolak, intxaur-saltsea, konpota, mazapanak, turroia izaten ziran orduko sasoian jateko nagusiak.

Gabon-gaueko afariko ogi-kuskurra (*ogi salutadua*) ebagi, mantel azpian euki, urte osoan gorde eta orduan etxeko txakurrai emon, amorratu ez eitezan. Hori zan ohiturea, eta ez ei zan ogi hori urdintzen edo lumintzen.

Natibitate eguneko armozua txokolatea izaten zan. Mezea be egoten zan, eta gizonezkoek meza ostean kopeoa egiteko ohiturea eukien. Natibitate eguneko bazkaritan aurreko gauean sobrau zana jaten zan, normalean.

Gabon-gauean etxetik urteteko ohiturarik ez egoan, baina bai Gabonzaharretan. Tabernak zabaldu egiten ebezala eta, kanpora urteten zan. Soinulari eta guzti ibilten ziran han afalosteko juergan.

Urtebarri eguna umeena izaten zan: alkarregaz batuta auzoko etxeetatik ibilten ziran kantu errondan. Hurrengo hau kantetan eben, ordeaz sari txikiak hartzen zituela: laranjaren bat, intxaurrak, hurretxak, errealen bat, eta abar.

Urtebarri karri-karri
daukonak ez daukonari,
nik ez daukat eta zuk niri
ezpabere txarri/txori belarri.

Errege egunagaz batera amaitzen zan (gaurko lez) Gabonetako zikloa. Zapatak ondo-ondo garbitu eta etxeko bentana eta balkoietan ipinten ebezan ume eta gazteenek, erregeek zer ekarriko. Hurrengo goizean gauza txikiak agertzen ziran zapata barrenetan: fruitu lehorrak, galletaren bat, diru apurren bat eta halakoak. Egun haretako jatordua be apartekoa izaten zan; etxe batzuetan hil barri ziran txarrien hankak preparetan ziran egun horretarako. Eta orduantxe kantetan zan *Apalazio* kanta ezaguna:

Apalazio zalduna
hiru erregen eguna,
zotzak eta paluak
estudiantearen kontuak.

Erregeak datoz
Jesus adoratzen,
geu bere hementxe gatoz
limosnea batzen.

Apalazio zalduna
hiru erregen eguna,
zotzak eta paluak
estudiantearen kontuak.

JAIOTZATIK HERIOTZARA ARTEKO BIZITZA-OHIKUNEAK



Juliana Madariaga, parterea, 1945.

Lagun baten bizitzan badira bere bizitzako aldi garrantzitsuei lotutako ohikune orokor edo kolektibo jakin batzuk. Bizialdiko lau une nagusi bereizi ditugu: jaiotzea, seintzarotik konfirmazinora bitartekoa, gaztezaroa eta ezkontzea, eta heriotzea.

Umeak etxean jaioten ziran lehenago, eta normalean medikuaren laguntasun barik: gehienez be, partereari –Juliana izan zan Morgako emagina– abisua emoten jakon, horretarako astia egoanean, eta hak laguntzen eban umea jaioten. Ama ohean erdiminetan egoan bitartean, gizonaren zeregina izaten zan iturrira uretan joan eta ur hori irakiten ipintea. Seina jaio eta segiduan, gorpuztxua bero egoala, burua biribilduteko aprobetxetan eben batzuek, eskuakaz formea emonda, buru luzerik lotu ez ekion. Jaio eta batera, umea garbi-garbi egiten zan eta zila amarrau egiten jakon, sikatu eiten. Etxe batzuetan, zila, behin sikatu ezkero, umearen fajatxuan sartzen eben, osasunerako on egingo eutsala sinestuta, eta beste horrenbeste egiten zan eskapulario eta kutunakaz, seintxuari babesa emoteko ipinten jakozan.

Umeari ze izen ipini zan hurrengo kontua: etxekoren batena edo eguneko santuaren izena ipinten jakon jeneralean. Gaur egun denpora gehiago igaroten da umea jaioten danetik eta bateatu arte, baina gure lekukoen sasoian denpora gitxi pasetan zan jaiotzako momentutik bateokora: aitabitxi eta amabitxi izentau ziranak eroaten eben bateatzen (Meakaurreko eleizara, normalean). Batzuek umea egin eta segiduan eroaten eben, eta beste batzuek (gehienek), lehenengo hogeta lau orduen barruan. Jaiobarria gaixorik edo makalik egoala ikusi ezkero, etxe-bateoa egiten zan, eta etxe



Maite Duranen bateoa. Aitabitxi-amabitxiak: Jon eta Maite Eguren, 1970.

batzuetan hondino be akorduan daukie bateatu aurretik umeari ez jakola mosurik emon behar izaten. Bateatu barik hilten bazan umea, aparte emoten jakon lurra Meakaurreko ortusantuan; *linboan*, esaten eutsien.

Ama sein egin barriak etxetik urten barik egon behar izaten eban, harik eta berrogei egungarrenera eleiz-sartzea egin arte. Bien bitartean, senideek nahi auzokoek opariak egiten eutsiezan. Baserritarren kasuan, erditu barriari oiloak eroatea zan ohiturea, oilo-saldea indarbarritzeko ona izaten zala-ta (aitak jaten eban oiloaren okelea). Baina ohikoak ziran, baita, osterantzeko jateko eta edateko batzuk



Abaunza neba-arrebak, 1966.



Meakaurreko eskolako neskatilak, c. 1960.

be: galletak, San Blas edo Sanson edariak, Jereza eta holakoak.

Seintzarotik konfirmazinora arteko aldiak hamabi bat urte irauten dau. Denpora horretako lehenengo urteetan umeak oinez eta berbetan ikasten eban, berez edo, astia egon ezkero, etxekoen laguntasunagaz. Haginak urteten be orduan hasten ziran, eta mina kentzeko etxeko erremedioetara joten eben gehienetan umeen amak. Batzuetan porrua erabilten zan horretarako: ortu edo solotik fresko-fresko atera, eta hari haginka egiterakoan soltetan



Lehenengo jaunartzea. Goian ezkerretik: Jose Luis Otazua abadea, Pedro Bilbao, Paulo Villa, Jesus Barrena, Jesus Mª Orue-Rementeria eta Aita Jose Luis. Erdiko lerroan: Iñaki Uribe, Jesus Elorriaga, Estanislao Elorriaga, Urbano Ormaetxea eta Jose Luis Zorrozua. Behean: Jose Ignacio Olivares, Begoña Mandaluniz, Mª Jesus Goikoetxea, Mª Nieves Ormaetxea eta Serafin Arkarazo, c. 1954.

dauen urak uiak hotzitu eta samurtu egiten ditu. Umeari hagintxua jausten jakonean, teilatu ganera jaurtiten zan, eta botakeran honetariko errezitaduak esaten ziran:

> Maritxu gorria, esaizu egia, eroan hagin zaharra eta ekarri barria
>
> edo
>
> Maritxu gorria, teilatu gona gorria, eutsi hagin zaharra eta ekarri barria.

Eskolara sei-zazpi urtegaz hasi eta hamalaugaz amaitzen eben, aurretik etxeko beharretan laguntzeko itxi behar izaten ez eben kasuetan, behintzat. Gaztelaniaz emoten zan eskolea eta maisu-maistrak ez ziran herrikoak: nafarrak, Zamorakoak, Leonekoak… egozan. Neskato eta mutikoak gela banatan egozan, eta klase bakotxean edade ezbardinetako ikasleak. Oinarrizko lau erregelak, Espainiako historia, irakurten eta idazten ikasten zan eskolan eta materiala be ez zan orain dagoana lakoa: pupitreetan jesarrita, pizarrina, lapitza eta lumea erabilten ziran; tintontziak mahaitxuetan egoten ziran; gerora urten eben boligrafoek.

Sei-zortzi urtegaz egiten zan komuninoa, eta horretarako dotrinea ondo jakin behar izaten zan: abadeagaz eta euskeraz ikasten eben dotrinea, eta komuninoa hartu baino lehen konfesau egin behar izaten zan. Jaunartzekoa egun handia izaten zan, eta bakotxa ahal izaten eban erroparik apainenakaz joaten zan eleizara: batzuek jantziak erosi egiten ebezan, baina ohikoena izaten zan, erropa bera familiako ume diferenteek erabiltea. Errekordatorioak ateraten ziran egun horretarako, eta opari txikiak be egiten ziran kasu batzuetan. Jatordua, apartekoa izaten zan, baina etxean bertan egiten zan normalean.

Lehenengo jaunartzetik bost-sei urtera egiten zan konfirmazinoa, mutikoek fraka laburren ordez luzeak ipinten ebezan sasoi beretsuan. Obispoa be etorten zan egun horretan meza nagusira.

Gaztaroan (*gazte-denporan*) hasten ziran neska-mutilak erromerietara joaten eta orduan hasten ziran bikote hartuemon gehienak: alkarregaz dantzan egin eta gero, hartuemona ona bazan, normala izaten zan mutilak neskei etxera laguntzen hastea. Matrakak, neskak kanpoko herrietako mutilakaz ibilten ziranean hasten ziran, herriko mutilak haserratu egiten ziran eta. Errondak be baegozan: mutilak, bakarrik edo koadrilan, neskatoen etxeetara joaten ziran, ha-



Ezkerretik: Jose Zorroza, Mª Nieves Ormaetxea, (—-), Felix Madariaga, Mª Carmen Ormaetxea eta Joseba Uribe, 1962.



Neska-mutil koadrilea. Beste batzuen artean: Angel Madariaga, Mª Jose Olea, Mª Angeles Sagasti, Mª Jesus Erezuma, Belen eta Begoña Abaunza, Mª Angeles Artetxe, Mª Ines Olea, Jon Villa, Mª Victoria eta Miren Sorne Madariaga, c. 1970.

reekaz berba egin edo apur baten egotearren. Batzuetan nesken bentanapean gau osoak be igaroten ebezan.

Neska-mutilak alkarregaz bakarrik ibilten hasten ziranean hartzen zan euren hartu-emona nobiotzakotzat (*nobidxe-nobidxo dabilz*); era horretan urte batzuk emon ondoren, normalean mutilak eskatzen eutsan ezkontzea neskeari, eta handik lasterrera hasten ziran ezkontzea eratzen gurasoen laguntzeagaz. Izaten ziran, dana dala, gurasoek aurrez atonduriko ezkontzak be, ondasun interesak bitarte zirala. Ezkontzea abadeagaz be preparetan zan, eta ospatu aurreko hiru aste arinago deierak (*deidxenak*) botaten ziran meza nagusian, inok zeozer esatekorik baeukan edo.

Ezkongaien despedidea orduan be egiten zan, baina ez oraingo moduan. Mutilak lagunakaz tabernara joaten ziran, eta neskatilak etxean batzen ziran: entremes batzuk eta txokolatea hartuaz bide batez arreoa erakusteko. Ezkondu orduan, neskatilen ardurea izaten zan arreoa prestetea: toallak, izarak, kuartuetako erropea eta halakoak eroaten ziran bizileku izango eben etxera, ondo apaindutako gurdi baten ganean otzaretan sarturik.

Ezkontzak egiteko sasoia, Gabon ingurua, udabarria edo uda hasierea izaten zan jeneralean; eta zapatuetan goizean goizetik izaten ziran, inoiz bez Garizuman. Ezkontzarik gehienak Morgan bertan izaten baziran be, bikote batzuk Urkiola edo Begoña lako leku ezagun edo seinaladuagoak hautatzen ebezan ezkontzeko. Ezkontzetara, etxekoak eta hurreneko auzoak baino ez ziran joaten konbidadu. Ezkongaiak oinez joaten ziran eleizaraino, dotore jantzita: gizonak korbata eta guzti, eta andrazkoak baltzik. Eleizkizunaren ostean tabernaren batera joaten ziran, zeozertxu edan edo jatera, baina ezkontza-ospakizuna etxeko atartean egiten zan. Jatekoa apartekoa izaten zan, jakina: paellea edo garbantzuak lehenengo, oilasko edo artxoren bat hilten zan okelatzat, eta abar.

Ezkonbarri guztiek ez eben eukiten beti ezkonbidaia egiteko modurik, eta, salbuespenak kenduta, egiten ziran osterak be ez ziran izaten oraingoen besteko luzeak: Donostia zan leku izentauenetariko bat.

Ezkontzeagaz zerikusia daben kontzeptu bi dira: dotea eta gozamena. Dotea, bikotearen bizileku izango zan etxera kanpotik etorrenari ipinten jakon kargea zan: ondasun kopurua edo dirua izaten zan. Zenbat eta etxe handiagoa euki edo zenbat eta ondasun gehiago euki (lur, baso eta antzeko), hainbat eta handiagoa izaten zan dotea. Gozamena, jubilazino-modu bat zala esan leiteke. Gurasoak bizi ziran etxera ezkontzen baziran, etxe haretako irabazi ekonomikoen zati bat hareei emon behar izaten jaken. Soloko jeneroa saltzeko orduan, kasurako, saltzetik ateratako diruaren erdia emon behar izaten jaken. Gurasoetariko bat alargundu ezkero, gozamen-baldintzak be aldatu egiten ziran: orduan, erdia barik, irabazien laurena emoten jakon alargunari.

Heriotza-ohikuneak personearen azken momentuai loturik egon dira. Persona bat gaixo txarrak jota edo azkenetan egoanean, agonian (*agonidxen*) egoala esaten zan. Orduan abadeari emoten jakon abisua prisaz, hainbat arinen etxera etorri zedin, gaixoari sakramentuak emoten. Deia hartu eta lasterrera, abadea monagiloa lagun hartuta joaten zan normalean: gaixoari berba batzuk esan, *oleo enfermorum* dalako orioagaz bekokia eta, ahal izan ezkero, eskuak igurdi eta, ahal zan kasuetan, hostia edo gure jauna emoten eutsan hilzorian egoanari.



Obdulia eta Fidel Garabieta, 1955.

Gure lekukoen sasoian, gorpua etxean eukiten zan, eleizara eta gero kanposantura eroan aurretik. Etxekoek garbitu behar izaten eben gorpua, bai eta erropa eleganteenakaz (ezkontza egunekoakaz, sarri) jantzi. Gauez gaubelea egiten zan etxean, etxekoei auzokoek laguntzen eutsela. Alkarren ondoan jesarrita errosarioak errezetan ziran, harik eta goiza etorri arte. Orduan hildakoaren etxekoek armozua prestau eta ateraten eutsen gaubelan egon ziranei.

Atautea (*ateute*) andariek eroaten eben sorbalda ganean etxetik eta eleizaraino, herriko bideak, andabideak, ibilteko beti onak ez baziran be. Eleizara bidean abade eta monagiloak aurretik joaten ziran gidari antzera, eta honeen atzean hurreneko etxeko edo auzoren batek kurutzea, eta auzoko lau gaztek atautea eroaten eben. Lantzean behin geratu egiten ziran, errezu batzuk egin eta, bide batez, andariek deskantsu hartu egien. Gorpua eroaten zan bitarte horretan, harik eta eleizan sartu arte, hil-kanpak, *tokadak*, joten ziran. Andariei, eleizara heltzean, jaten eta edaten zeozer emoten jaken, indarrak barritzeko.

Kategoria ezbardinetako enterruak izaten ziran; hildakoaren etxeko-senideek zenbat diru euki eta emon, horren araberakoa: hirugarren klasekoak ziran merkeenak eta abade bakarragaz egiten ziranak. Bigarren klasekoetarako beste abaderen bat be etorten zan, eta lehenengo mailakoetara herritik kanporako eleizgizonak be batzen ziran. Enterruaren ostean, ohiturea zan hildakoaren etxean familiako eta auzokoentzako bazkaria egitea.

Senitarteko bat hilten zanean, familiakoak lutuz jantzi behar izaten eben. Hildakoa gurasoetariko bat zanean, urte bikoa zan lutua; aitita edo amama hil ezkero, urtebetekoa, eta osaba-izekoa zanean, sei hilebetekoa. Andrazkoek erropa guztia baltzik tintetan eben, eta gizonek zinta baltza ipinten eben besoan. Lutu-denporan ez egoan, ganera, erromeria, jai eta antzeko ospakizunetara joaterik.

ASTIALDIA

Lehenago jenteak ez eban eukiten oraingo beste denpora libre: goizetik gauera zeregina franku egoten zan etxean, etxe inguruan edota solo eta basoetan. Hori dala-ta astialdiak guztiz laburrak izaten ziran, eta egun jakinetan baino ez ziran hartzen.

Astean jaiegun bakarra egoten zan, domekea, eta orduan be mezara joan, bazkaritako jatekoak ipini (garbantzuak, paellea, gisadua eta holakoak izaten ziran) eta, arrastiko errosarioaren ostean, erromeria egiten zan. Andramarin egiten zan domeketako dantzaldia, eta lekukoen denporan Biorretako (*Bidxorta* Meakatik Oñarterantz dagoan baserria da) Patxi (koxoa) edo bere seme Josetxu ibilten ziran soinuagaz gora eta behera. Erromeria hasi aurretik, tabernetatik errondea egiten eben, martxea joaz batera, jentea apurka-apurka batu eiten. Orduko denporan, hatan be, erromerietan egiten ziran bikoterik gehienak: mutilek neskatilei dantzea eskatuta egiten zan lehenengo hartu-emona, nahi eta kalabazak be sarri emon bitarte horretan. Lehenengo jotea joten zan, soltuan dantzan egiteko, eta gero etorren pasodoblea, bikoteka alkarri oratuta dantzan egiteko. Mutilai dantzan egiteagaitik kobrau egiten jaken. Geroagoko kontua da, Zamudioko Juanito Zarandona Morgara gramoleagaz etorten zanekoa: diskoak ipinten zituan honek, eta herriko gazteak bardin-bardin ekiten eutsen aurrera eta atzera.

Domeketako erromeriagaz batera, ermitetakoak be egoten ziran urtean zehar. Ermitako santua ospatzen zan egunean mezeagaz batera erromeria egiten zan, herrian bertan (Meakako auzoan San Bizenti eta Ganben San Juan, esaterako), baina inguruetakoe-

tara be joaten ziran gazteak (Arrietako Jainkora, esaterako). Morga eta inguruetan ermita baten erromeria ezagunik izan bada, bat esateko, Bizkargikoa izan da. Santakurtze egunean (eta batez be hurrengo domekan) Morgako eta inguruetako herri guztietako jenteak (Larrabetzu, Muxika, Zornotza, Fruiz, Errigoiti, Mungia eta abar) igoten eban (eta gaur be igoten dau hondino) Bizkargiko ermitara. Antxina mezea eta erromeria izaten ziran. Tabernea be ipinten eben –bat baino gehiago be bai– eta musikea joteko orkestea egoten zan. Jente-artean, barriz, fotografoak eta barkilleruak be ibilten ziran. Morgatarrak, handik etxerantzean, beste erromeria bat egiten eben arratsaldean Ganen (Aretxabalagana edo *Goikogane* be esaten jako Larrabetzutik Morgara bitartean dagoan mendateari).



Jose Luis eta Rufino Barrena, Jose Zorroza eta Simon Olea, 1960.

Erromeria horreekaz batera, herriko jaiak be aitatu behar dira. Morgan Santiagoak (*Santidxoak*) eta Andramariak (*Andramaridxek*) izan dira jaiegun nagusiak. Santiagoetarako etxea garbi eta hormak zuriturik ipinten ziran etxe askotan, senitartekoak etorten ziralako konbidadu bazkaritan egun horretan. Konbidaduoi, heldu eta batera iturriko ur freskoa emoten jaken azukereagaz, eta egun horretako bazkaria apartekoa izaten zan: garbantzuak, gisadua, oilaskoa, makailaoa edo lebatza izaten ziran preparetan ziran jatekoak, eta familia osoa batzen zan bazkariaren inguruan.

Andramariak be handiro ospatzen ziran: mezea kantetan kanpoko kantoreak etorten ziran eta haren ostean tanbolinteruak etxerik etxe ibilten ziran musikea joten. Saritzat koparen bat edo galletak opatzen jakezan, eta bolanderak be botaten ziran egun osoan zehar.

Lehenengo idi- eta asto-probak izaten ziran Meakaurren egun bitan; gero egun bakarrera laburtu ziran, eta azkenean Andramarira eroan ziran. Probalekua zarratu eta sarreran leihatila txiki bat ixten zan jenteak sarreratxartelak erosteko. Harriak probalekuan bertan egozan



Erromeria Bizkargin, 1994.

–hondino be badago baten bat–: handiak idienak ziran (2.000 kilo ingurukoak), eta txikiak (500 kilokoak) astoenak. Animaliaren batek, baina, eskatzen zana baino pisu handiagoa euki ezkero, harriari be pisua gehitzen jakon (*ganera kargie*). Proba bitartean posturak eta kinielak be egiten ziran.

Neguko jaiak be baegozan: sanmartinak. Honeek Meakaurren ospatzen ziran, San Martin egunez eta hurrengo astegoienean be harean. Sekula ez dabe izan Morgan udako *Santidxoen* ospe ez entzuterik, baina jaiaren inguruan behe parteko jentea batzen zan. Denporeagaz galdu edo erdi galdu egin ziran San Martin jaioak, eta harrezkero bertako famili barruetako banketaz edo ospakizunaz aparte, ez da agiriko jairik egin izan. Askoz entzute handiagoa izan dabe beti Arrietako sanmartinak, eta jente gaztearen jokerea be handiagoa izan da harako, Morgan gelditzeko baino.

Umeen astialdiak bestelakoak ziran; batez be, ez denpora asko, baina bai gehitxuago eukiten ebelako: ez ziran erromerietara joaten, baina eskolara bidean, eskolan bertan edo etxean beharren bat egin behar ez ebenean, batu eta alkarregaz ibilten ziran; neskak nesketara eta mutilak mutiletara, normalean. Neskatilen ohiko olgetak, soka-dantzea (sasiarteetatik ateratako mata sikuakaz), tabak, trukamea edo kastorrean ibiltea ziran. Izan be, lehenagoko sasoian andrakila edo muñeka gitxi egoan. Mutilak, barriz, iturriakaz, hinkean, txorro-morroan, esku-pelotan trapuakaz egindako pelotakaz kalean nahi eleizpean edo txori-habiak topetan ibilten ziran. Neska-mutilak batera be olgetan eben, batez be eskolan: tinterka, txopinka, etab.

HERRI-MEDIKUNTZA

Lehenago ez egoan gaur dagoan beste mediku, anbulatorio ez ospitale. Morgako medikua kasurako, Don Mario Musatadi Arbe, Gernikan bizi zan eta handik etorri behar izaten eban herriko gaixoak ikusten. Nonor gaixorik egoanean, ze gaixo eukan be sarritan ez zan jakiten oraingo moduan eta asko zertatik gaixorik egozan be jakin barik hilten ziran. Baten bat gaixotzen zanean be, gaixo larriren bat ez bazan behintzat, medikuarenera barik, etxeko erremedioetara joten zan gehiago.



Etxeko erremedio horreetariko gehienak landarakaz zerikusia ebenak ziran. Asunak, esaterako, gaixo diferenteak osatzeko erabilten ziran: zatitu eta moltso bat eginik, igurdiak edo fregazinoak egiten ziran bularrean eztula kentzeko edo bizkarrean lepoko minen kontra, berotasuna emoten ebela-ta. Asunen *ura* hartzea be ona ei da odola garbitzeko eta tentsinorako.

Umeak be sarri hilten ziran oin erraz osatzen diran gaixoakaz: elgorria, paperak, anginak edo garrotilloa lako gaixoakaz. Gehien-gehienetan ohean egon behar izaten zan gaixoaldian, etxeko erremedioak hartuta: bonbilla eta bentanak trapu gorriakaz estaltzen ziran elgorriaren kontra; gargarak egiten ziran gatzuragaz eta binagreagaz handitutako anginak ibituteko. Garrotilloa, ba-

Erreuneak eta ebagiak osatzeko errebedarrak erabilten ziran.

rriz, gogorragoa zan: saman zuloa egin behar izaten jaken umeai, arnasea hartu ahal izan egien.

Esan eta ikusi dan lez, landarak sarri erabilten ziran gaixoak osatzeko. Birikietakoarentzako pulmonia-bedarra egoten zan, tripetako minentzako oraindino be hartzen dan mantzanilea preparetan zan; eta ebagi bat edo erreune



Birikietako gatxak osatzeko pulmonia-bedarra erabilten zan.

bat egin ezkero be, ebagi eta errebedarrak egozan: ganeko azala kendu eta ebagi edo errearen ganean ipinita osatu egiten ziran. Horreekaz guztiakaz batera, beste hainbat bedar eta erremedio-bide aitatu leitekez: iodo-bedarra, lukibuztana edo zantiratuak osatzeko "joste magikoa", kasurako.

ERROPEA (Soinekoak)

Gure barriemoileen gazte sasoian erropa gitxi zan, baina asko irauten eben. Erropea txiki lotu, urratu edo apurtzen zanean, jostunari abisua emon, –joskileok etxerik etxe ibilten ziran orduan–, eta konpondu egiten ziran, joskurak josita, barrenak luzatuta, adabarriak ipinita eta holan. Erropea erosi be, jostunai egiten jaken gehienetan, eta neskatila gazteak josten ikasten be euren etxeetara joaten ziran ia beti.

Eguneroko erropea astean behin aldatzen zan jeneralean, eta domeketarako jantzi eleganteagoak, dotoreagoak ipinten ziran. Gizonezkoen jazkerea honetarikoa izaten zan: txapela, almidoiaz ondo gogorturiko alkondara zuria, garrikoa, *mil rayas* edo mahoizko frakak eta abarkak erabilten ebezan normalean. Andrazko zahar edo edadekoek, barriz, gona luzea (frakarik inoiz be ez), amantala eta buruko ulea batuta (hiru puntadun paineluagaz sarri) eroaten ebezan. Trentzak etxaguntza handi edo aberatsetakoek baino ez ebezan egiten.

Domeketako erropea diferentea izaten zan: herriko jente guztia jazten zan etxeko erropa onenakaz mezatara eta erromeriara joateko: orduan



Josten ikasten. Ezkerretik: Benita Madariaga, Mª Jesus Goikoetxea, Miren Sorne Orue, Begoña Arrien, Begoña Oñarte-Etxebarria eta Mª Karmen Ormaetxea. Aurrean, Agurtzane Uribe, c. 1958.



Erezuma Landia familia. Ezkerretik hasita, zutunik: Columba, Ana, Jose Maria, Onofre, Benedicta eta Beatriz. Jesarrita: Petra Landia, Agustin eta Bartolome Erezuma. Agustinen lehenengo jaunartzea, 1942. Menika auzoa.

ikusten ziran jantzitxuak, jertseak, korbatak, zapatak, botinak eta holakoak.

Jaiobarri eta umeen erropea be diferentea zan orain hirurogei-larogei urte. Jaiobarriai harizko eta algodoizko oihalak eta ondo-ondo estututako paxea ipinten jaken. Painalak ez ziran izaten erabili eta botatekoak, gasazkoak baino; lohitu orduan albait ondoen garbitzen ziran lexibeagaz edo egosita, eta behin sikatu ezkero atzera erabilten ziran eurok. Mutiko gazteak, bestetik, fraka laburrakaz ibilten ziran harik eta *nagositu* arte, hau da, konfirmazinoadinera heldu arte.

Bilbon edo herriko jostunai jaztekoak erosteaz ganera, etxean be egiten ziran soineko batzuk. Antxina linoa ereiten zan eta, ha baturik, lino-txolak egin eta Zornotzako Astepeko ehuntegira eroaten ziran. Ehuntegi haretan linoa oihal bihurtzen eben eta harexegaz egiten ziran oheko izarak edo gizonezkoentzako kaltzontziloak, kasurako. Oihal modu latza eta astuna zan, dana dala, linoa.

Makina bat txapin, galtzerdi eta galtzeta egin izan dira lehenago etxeetan, barriemoileek dinoenez. Firua be etxean bertan egiten zan, ardiak moztu, lanea ondo garbitu eta gorutik igaro eta ostean.

Oinetakoak be, abarkak eta abarketak, etxe askotan egiten izan dira Morgan. Txahala hil orduan, narrutu eta ha narrua kamarara altzetan zan ondo-ondo sikatzeko. Behin sikatuta, oin-moldeagaz formea emon, ebagi, josi eta abarka-eztenagaz zuloak egiten jakozan kordela sartzeko. Geroago gomazko abarkak urten eben fabriketatik: sakonak (altuagoak eta sendoagoak, soloko beharretarako hobeak) eta azalak (labankorragoak) saltzen ziran.

Etxeetara urak ekarri aurretik, etxetik kanpora garbitu behar izaten zan erropea. Etxe gitxitan egozan labaderoak, eta andrazkoek inguruko erreketara joan behar izaten eben bogadea edo lexibea egiten, uda nahi negua izan. Normalean erropeari etxean bertan emoten jakon jaboia (*Chimbo*



Goikoetxeko labaderoa.



Burdinazko plantxea.

eta *Lagarto* erabilten ziran orduan), erdibitutako tinaku edo balderen baten sartuta. Handik, sorkiaren laguntzeagaz, buru gainean eroaten eben erropea balde edo tinakuan, errekako uretan garbitzen amaitu eta jaboia kentzeko. Eroan beharreko erropea asko edo astunegia zanean (oheko erropea zanean, esaterako), astoagaz be joaten ziran. Erreka batzuetan garbilekuak prestaurik egoten ziran: pozu txiki edo handiak eginda eta erropea igurditeko harri zapalak egoten ziran.

Erropa zuria garbitu eta zuritzeko lexibea egon baegoan, baina barriemoile gehienak ondo gogoratzen dira zelan zuritzen ziran izarak surtako hautsagaz eta ereinotzagaz batera egosirik.

Etxeetan argi-indarrik ez egoan denporan (eta geroago be), plantxak be ez ziran elektrikoak: burdinazkoak ziran, pisutsuak. Zaharrenak barrutik hutsik egozan eta txingarrak sartzen jakezan barrura berotzeko. Gerora urten eben hareek baino txikiago ziran batzuk, txapa izetuaren ganean ipinita berotzen ziranak.

OGIBIDEAK

Behar-beharrezko jatekoak eta soinekoak erosteko dendarik ez egoan sasoian, ez egoan, esaterako, gaur aurkitu geinkezan altzari-denden antzekorik be. Horreen ordeak zelan egiten ziran? Herrian-herrian egoten ziran era askotako artisau edo eskulangileak: buztarginak, arotzak, jostunak, ikazkinak, harginak, errementariak, errotariak, zesteruak, karabietako beharginak eta holan. Batzuek (ikazkinak edo karabietan ibilten ziranak, esaterako) basoetan egiten eben behar; beste batzuentzat (arotzak, errementariak, errotariak) euren etxea zan beharlekua, eta baziran, gainera, etxean behar egiteagaz batera herrian baserririk baserri ibilten ziranak be: jostunen kasua.

Artisau horreetariko bakotxak bere espezialidadea eukan, beraz. Zesteruek, otzarak, zaranak (*zestoak*) eta antzekoak egiten ebezan gaztaina-egurraren zumetzaren azalagaz eta mihimenagaz. Errementariek sutegietan prestetan ebezan soloko tresnen burdinazko piezak edo ganadu-abereentzako perrak (*erradurek*). Izan be, errementariaren beharlekuan egoan untegian bertan perratzen ziran idi, behi edo astoak.

Beste ofizio batzuk be baziran, euretariko batzuk gerora guztiz aldendu edo erdi baztertu badira be. Eleizakoetatik hasiko gara. Orain abadeak topetako arazoak dagoz baina, Morgan jenteak akorduan ditu hondino aldi berean bi-hiru abade egoten ziraneko sasoiak: Don Felipe, Don Enrike, Don Julian, Don Jose Luis, Don Pedro eta abar. Abadeakaz batera, sakristauak eta sakristaneak eukiten eben ardurea, kanpaiak jo, eleizea garbitu, eleizako eta abadearen trapu eta jantziak garbitu, eleizea loraz apaindu eta holangotarako.

Saltzaileak be ibilten ziran auzotegietatik gora eta behera, Morgako bertakoak zein beste herri batzuetakoak etxerik etxe. Bermeotik, esaterako, arrain-saltzaileak etorten ziran antxoa, sardina, txitxarro eta beste arrainkiak saltzen; Muxikaraino trenez eta handik Morgara oinez etorten ziran. Gernikatik *binoteruak* etorten ziran, Morgako tabernetara ardao-zaragiak asto ganean ekarrezala. Narruagaz eginiko 80 litroko zaragiak izaten ziran, eta bidean zein leku batetik bestera eroateko orduan kontuz ibili behar izaten zan, kolperen bat emon eta errementau egin ez egien.

HERRI-LITERATURA ETA MITOLOGIA

Gauza jakina da, gure artean be kantetako ohitura handia izan dala beti. Lehenago be bai, eta horren espilu dira Morgan entzun eta baturiko kanta batzuk; ondoko honeek, esaterako.

Lehenengoa Gabon-gaueko afariaren ostean kantetan zan; bigarrena, umetxuai lo eragiteko lo-kantea da; hirugarrena eta laugarrena, lagun artean kantetan ziranetarikoak:

Gabon-gauean
Gabon-gauean ospatu daigun
danok apari on bana,
patata, porru, makaillao saltsan,
bakotxak berak ahal dauna.
Astegunean lanik ez,
jaiegunean gogorik ez,
horreek guztiak holan izanda
hondino bizi ezinik ez.

Obabatxua
Obabatxue lotiritañe,
ez egin lorik basoan,
piztiren batek jan ez zagizan
bildotsa zaralakoan.
Obabatxua lo-lotxu,
gaur zoaz eta bihar erdu,
subil ondoko papaua baizen
maiteagoa zaitut zu.

Pepe Antoni
Pepe Antoni koloregorri,
kapitai baten alaba,
aitak doterik emon ez arren
bila etorriko da senarra.
Astelehenean ezkondu eta
martitzenean basora,
eguaztenean orbela batu,
eguenean etxera.
Barikuan bere bendejea batu,
zapatuan bere plazara,
domekan bere apaindu eta
hamarretako mezara.

Txiki-txikitatik
Txiki-txikitatik aitak eta amak
fraile ninduen nonbradu,
estudioak ikasten bere
Salamankara bialdu.
Salamankara bide luzean
nenduan pentsatu,
estudiante txarra baino
hoba nenduala ezkondu.

Kantakaz batera, ugariak dira herrian-herrian entzuten diran kontu, ipuin eta istorioak be; sorginak, laminak, Anbotoko Señorea, iratxoak eta *sacamantecas* okerraren barri aitatu deuskue barriemoileek, bai eta Morgan bertan jazoriko gertaera ilunen barri be.

Anbotoko señorea eta laminak

Anbotoko señorearen entzutea Morgan be bada. Sorgina zalakoan dagoz barriemoileak, marrotuta lez gauez ibilten zala, azkonarrakaz eta. Laminak be sorginak ei ziran eta erreka inguruetan urteten ebela esan deuskue, transformau egiten zirala jentea ikaratzeko.

Eguraldi txarra ekarrenean be, entzuten zan lehenago: "Hor dator Anbotoko señorie".

Morgako krimena

Eskerika aldean lehengo mendeko hogeigarren hamarkadan jazoriko krimena oso ezaguna izan zan herri eta erbestean, eta orduko egunkarietan be asko zabaldu zan "el crimen de Morga" izenaz ezagutua, baina herrian bertan tabu antzera erdi-isilean gorde dan gertaera latza da. Kanpotar bat, "maketoa", behar Zornotzan egiten eban gizon bat, ei egoan Morgako andra bategaz ezkonduta. Andreo-

rrek, baina, maitale edo *keridoa* ei eukan, eta euren hartuemonerako senarrorrek enbarazu egiten eutselako edo, senarra hiltea erabagi eben, antza. Gurdia idi-buztarriari lotuta Zornotzara bidean joan eta han itxaroten egon ei jakozan, gizona Zornotzatik noiz agertuko; etorri zanean, bertan hil, gurdi ganean etxera ekarri eta etxe-atzeko sats-piloan enterrau ei eben. Handik egun batzuetara, baina, gizonori inondik ez zala agiri eta, jentea bila hasi ei zan, eta bazter guztiak arakatu ostean, azkenean gorpua sats-piloaren barruan aurkitu ei eben. Kartzelara eroan ebezan andrea eta maitalea, biak. Orduko egunkarietan, hurrekoetan eta urrunekoetan be hots handia atera eban krimen horrek[3].

Señorío de Bizkaia

Ezaguna da Morgan heriotzadun istorio zahar bat, herriko leku-izen batzuekaz lotuta dagoana. Orain kanposantua dagoan lekuan palazio bat ei egoan antxina, eta han Bizkaiko jaun bat eta haren semea bizi ei ziran. Ondasun eta aginte gorabeherak bitarteko dirala, alkarregaz haserre gogorra hartu ei eben, eta batak bestea hilteko asmoa hartu be bai. Eta halantxe, bata bestearen atzetik *Ainerrekan* zehar joan ei ziran (Arin-errekan gora), eta Meaka barreneko ibarrean, *Armaketa* esaten jakon trokan armak hartu eta armaketan ekin ei eutsen alkarregaz. Meaka igaro eta handik aurrera *Biorreta* deritxon baserri ingurura ailegau ziranean, hankea bihortu ei jakon euretariko bati (batzuen esanean) eta samea bihortu ei eutsan batak besteari (beste batzuen esanean). [Igeska joianak bidea bihortu ebala be esaten da]. Handik ezkerretara jota alkarren atzetik *Mortura* ailegau ei ziran, eta han, Mortun, batak bestea hil ebala, eta horretatik ei jatorko troka horri Mortu izena. Kontuaren kontarien esanetik, ezin garbi jakin nok zein hil eban, aitak semea ala semeak aita. Barriemoile batzuen esanean, aitak hil ei eban semea, baina bada bestetara izan zala dinoanik be.

[3] Madrilgo *ABC* egunkariaren arabera (1926-01-19) egun horretan atxilotu eben andra hori, heriotzearen estalgiletzat. Hurrengo egunean eta hurrengoan izan zan epaiketa Bilbon (1926-01-22), gizon maitalea hiltzaile eta emaztea estalgile ziralako salakuntzaz. Epaitegi aurrera jentetza handia batu ei zan nonzebarri.

Historiografiak kontetan deuskunez, X. mendearen erdialdean, Bizkaiko Jauna zan Munio Lopez –ustez bigarren Jauna, Jaun Zuriaren hurrengoa– beronen seme Iñigo Lopez Ezkerrak hil ei eban bata besteari segika joan ondoren.

Jaun Lope Garzia Salazarkoak, *Las Bienandazas e Fortunas* liburuan, Bizkaiaren Kronika zahar antzeko eskuizkribuzko liburuan, honetara kontetan dau 1450. urte inguruan, 920. urte inguruko jazoera lazgarria baino lau mende atzerago, Munio Lopez Bizkaiko Jaunaren heriotza odolgiroa.

> "Jaun Zuria hil ondoren, Manso Lopez, haren seme legezkoa hautu zan Jauntzat, ze Gaztelako Konteei laguntzen ebilela mauruek katigu hartu eben. Eta honen andreak hori jakin ebanean, Iñigo Ezkerra bere semeordeari dei egin eutsan; beste andra baten semea zan berau, gaztea eta itxura ederrekoa. Eta esan ei eutsan: "Zure aita katigu dago eta handik urteterik ez dauka. Ezkondu zaite neugaz eta zeu izango zara Bizkaiko Jauna." Baina honek ezetz esan eutsan lez, andreorrek goiz beranduan urten isilean logelatik arpegia urratu beharrean, eta aldarrika hasi zan harek behartu egin gura izan ebala esanez. Semea, hau ikusirik, mugarantz zuzendu zan aita askatzera, eta adu onak lagundurik, aurretiaz harrapatu eban mauru baten truke atera ahal izan eban handik, eta aitagaz lagunduta bihurtu zan; baina ez ei eban etxera sartu gura izan. "Aita Jauna" ohartu eutsan, "egia aurretik jakin barik, ez sinesterik emon nigaitik deungaro esaten deutsuezanei". Baina emakume faltso harek etorrerearen barri jakin ebanean, bere arpegia urratzen ebala hartu eban, esanez haren seme Iñigo Ezkerrak ondrea galdu eragin eta behartu egin gura izan ebala. Eta aitaorrek hori ikusi eta gero, semearen bila urten eban eta Meakaurren inguratu eban. Semeak ikusi ebanean egiak ezertarako ez eutsala balio, esan eutsan: "Jauna, gaiztakeriak zuretzako egiak niretzako baino balio handiagoa dauen ezkero, Jainkoa ipinten dot testigu eta zeugaz batera hilko naz. Zu armatuta eta ni arma barik, ni burdin bako astamakileaz eta zu burdinazkoaz". Eta esan eta egin, astamakilearen ertza sartu eutsan armetan zehar aldetik aldera eta zelaian hilik itxi eban. Meakaurreko eleizan beatua, ehortzia izan zan".

INFORMANTEAK

Zuoi, lan honen protagonista zarien guztioi, herri ondarea eta zeuen herriko hizkerea hain polito gorde dozuelako, eskerrik asko bihotzez.

1. Jose Maria Erezuma Landia (1918), Menika. (†)
2. Obdulia Garabieta Erezuma (1921), Morgakoene.
3. Felipa Bilbao Monasterio (1925), Duone.
4. Victoria Bilbao Ateka (1927), Andramari.
5. Purita Uribe Oleaga (1929), Andramari.
6. Cipriana Villa Mandaluniz (1929), Oñarte.
7. Santi Madariaga Makoaga (1929), Meaka. (†)
8. Gloria Uribe Mandaluniz (1931), Andramari.
9. Felix Bilbao Monasterio (1932), Zugatzaga.
10. Valentin Elorriaga Urkijo (1933), Igartu. (†)
11. Quirina Uribe Olea (1933), Meakaur.
12. Simon Olea Orue (1936), Oñarte.
13. Josefina Oregi Monasterio (1937), Obarre.
14. Josefina Orue-Rementeria Uruburu (1942), Meaka.
15. Jesus Oar Ibarzabal, Arrieta.

Liburuxkan erabilitako argazkien zerrendea[4]

Morgako Udalak itxitakoak: 11, 12, 14, 18 eta 19
Ruiz de Azua: azalekoa, 17, 25, 29, 31 eta 59

Labayru Ikastegiaren Artxiboa:

Asier Bidart: 23
Ziortza Eguren: 13, 16, 22, 26, 27, 30, 35, 36, 39, 65 eta 66
Jose Ignacio García: 15
Miren Ibarluzea: 28 (bis) eta 33
Akaitze Kamiruaga: 13 (bis), 28, 32, 38, 38 (bis), 39 (bis), 40, 40 (bis), 44, 46 eta 47
Luisma Peña: 61 eta 62

Argazkiak itxi deuskuezan lekukoak honeexek dira:

Julita Arrien: 52 eta 63
Jon Eguren eta Mª Jesus Erezuma: 24, 51 eta 64
Obdulia Garabieta: 55
Markel Loroño: 45 eta 54
Arantza Madariaga: 52 (bis)
Eugenia Oñarte: 51 (bis)
Leire Ormaetxea: 53
Jose Mª Uriarte: 20
Mertxe Uribe: 50
Ana Silvia Uribe eta Juan Olea: 42 eta 58

[4] Zenbakiak argazkiak agertzen diran orrialdeai jagokez.